



Zazkel 2012an sortu zen Bilbon, agian Santutxu auzoan. Aldez aurretik, Asier eta Etxahun, Santutxuko Sorgintxulo Gaztetxeko musika gelan ibili ziren taldearen aurrekariak prestatzen. Geroago, bi horiek, 2012an, osatuko zuten Zazkel Oscar, Jon, Axierito eta Iratirekin. Txandakako bateriak ditu orain taldeak, Axierito eta Piarres. Irati, Piarres eta Etxahun anai-arrebak dira. Zazkel taldeak musikaren oinarria kantuak egiterakoan bi soinu-eritmoetan zuen jarrira begia; hots, 80ko hamarkadako euskal pop-rock taldeetan eta Estatu Batuetako beltzen hamaika eritmoetan. Musikarekin batera garrantzitsuena kantuak euskaraz egitea zen. 2015ean "Beta" izeneko bost abestiko lehen maketa kaleratu zuten, Raul Vilanek grabatu zuen (Axieritoren anaia). 2016an Kaki Arkarazok grabatu zuen Andoaingo Garate estudioetan autoekoitzitako "Zazkel" disko luzea. Azkue Fundazioak antolatutako Banden Lehiaren 2016ko edizioa irabazi zuten. Saria, 2017an disko berria kaleratzea, "Ez entzun" eta kontzertu bi.

Zazkel taldearen "Ez entzun" diskoa 2017ko uztailaren 17a eta abuztuaren 18a bitartean grabatu eta nahastu da Garate estudioetan (Andoain, Gipuzkoa). Kaki Arkarazok aurre-produkzioa egin du, gero grabaketa, nahasketa, ekoizpena eta masterizazioa Robertorta Robertorak Zorroztujia hau da, lehiadioetan rekariakintzes. ikabea.ioa egin du, gero grabaketa, nahasketa eta ekoiz. Hemen Zalkel taldeak diskoan jaso dituen laguntzak: "Bazka Ederra", "Afera Ustela" eta "Eremu mortuan" abestietan Aizkorak Zorroztu taldeko Mikelek, Anderrek eta Alainez koruak egin dituzte. Euridicek koruak egin ditu "Bazka ederra" kantuan. Enaitz Landaburuk, sukaldari lanetan, "Bazka ederra" abestiaren Zazkel bokata prestatu du. Aritz Etxebarriak "Ez entzun" abestiaren letra egiten lagundu du eta esatari da "Titaniozko sudurrak" abestian. Mikelin eta Roberto (Ardoa Barrurako) eta Aratz (Akatz) haizeaz arduratu dira "Afera ustela" eta "Ez entzun" abestietan. Dr. Krzyc-ek "Beta" diskoko "ZDT" abestiaren remixa egin du. "Infernuko atean" kantua Hertzainak taldearen abestiari egindako bertsioa da. Argazkiak Hodei Torresek egin ditu. Diseinua Etxahun Arregi Pikabearena da.

Zazkel taldearen bigarren diskoak "Ez entzun" du izenburua. Zazkel taldeak musikaren kontakizun askotarikoa du, berdin nahastuko du funkya poparekin, raparekin, rockarekin, diskoarekin, post-punkarekin, reggaearekin, soularekin zein elektronikaren sastadekin. Maiz entzungo genituen Rick James, Itoiz, Jackson 5, Hertzainak, Talking Heads, M-ak, Bowie, Negu Gorriak edo The Clash. Inork esango du nahiago duela jatorrizko talde horiek entzutea haien ondokoak baino. Baina talde haiek beste zerbaiten ondorengoak izan ziren ere bai, eta, gero, eraginor. Zazkel taldea euskal ondorengoetakoa da eta merezi dute entzunaldi eklektikoa, askotariko osagaiekin konbinazio duinena lortzeko bidea egin baitute ludikotasun konprometituarekin. Zazkel entzun daitekeen bidean da.

TITANIOZKO SUDURRAK

Prekarietatea bikaintasunaren atzean. Gezurak eta zikoizkeria arrakastaren ordainetan. Eskuak garbitzen dituzten instituzio publikoak kaleratzen eta jazarpenaren erantzule. Hau da herrialde baten motor ekonomiko garrantzitsuek eta modernitatearen estandarte diren erakundeek erraietan ezkatuta ohi dutena. Boterea duenak bere sende eta hurbilekoentzat doituagoen gizarte sistema bat sortzen du, non haien enpresa eta erakundeek etekina ateratzen duten, elkarte honetako parte ez diren hiritarrei bizi baldintza duinak eta oinarritzko eskubideak ukatuz. 80ko hamarkadako soinuak erabiliz Miami Vice telesaila gogorarazten du abestiaren hasierak, baita irratiaietako albistegi zerbitzuen doinua ere. Chicagoko House musika eta baita Carlos Santana gogorarazten diguten eritmoek edo Negu Gorriakena izan zitekeen rapeoak laguntzen dute abesti osoan zehar, beti ere entzulea dantzazterako helburuarekin.

EREMU MORTUA

Nor garen eta garai batean nor izan ginen alderatzean, bidea bilaketa prozesu bat dela ikusten dugu. Oreak beti kolokan jartzean, joko patroia apurtzean datza. Joera errepikakorrek ez dute garapena sustatzen. Nortasuna eboluzioan datza, erosotasuna eta monotoniak nortasuna ezabatzen dute. The Smiths zein The Cure taldeen eragin zuzena atzematen dugu gitarra amorrutaz jotzeko moduan zein sintetizadoreen nota naif inuzenteetan. Ingalaterrako post-punk soinu-paisaia ilun eta hotzetara garamatza bai abesteko era gordinak zein gainerako musika-tresnen interpretazioak sortzen duen atmosferak.

INFERNUKO ATEAN

Zazkelentzat Hertzainak beti izan da erreferentzia nabarmena abestiek egiterako momentuan. Eragina ez da eritmoetan soilik atzematen, abesteko eran eta koruak harmonizatzeke moduan ere nabaritzen da. Beraz, taldeak Hertzainak bertsioa egitea lehenago edo beranduago gertatu beharreko gauza zen. Alde batetik, Ez entzun diskoaren nortasun gordin eta ilunagoa kontuan hartuta, bere izaerarengatik izan da Infernuko Atean aukeratua. Beste alde batetik, ohi bezala dibergentzia bilatuz, abesti ezagunenetatik aldentzeagatik ere aukeratu dugu.

BAZKA EDERRA

Arimaren salbazioa helburu, garbizalekeria moral moderno baten ondorioz, zeruaren aurka bekatu ez egiteaz arduratuta, lurraren aurka bekatu ez egitea ahaztu zaigu. Haragikeriaren ospakizun koipetsuaren manifestu irmo baten aurrean gaude. Hedonismoa bizitzaren elikagaietako bat baita. Hemen eta orainaren aldarrikapena. Beltzen funky musikaren gitarra zarrastatu eta pickingak The Clash edo David Bowieren eskuetan erori zireneko garaia gogora ekartzen duten eritmoak abeslariaren kantatzeko modu irmoarekin nahasten dira, ukitu eklektikoa emanaz.

APIRILAK 5

Euskal Herriko historian zorigaitzoko gau batean ekidin zitekeen gertakari iluna. Justizia Inigorentzat. Estatu Batuetan 80ko hamarkadako rock estiloen oinarrituta instrumentu perkusiboago eta gogorragoen nota biribilak teklatuak biltzen ditu pad akordeekin. Abesti sendoa eta eritmoz bete, entzulea hasieratik bukaera adi mantenduz. Bukaeran sintetizadore soloak abestiari distira emateko.

EZ ENTZUN

Ekin! Sena jarraitzea ezinbestekoa da oihanean bizirauteko. Hau egin ezean, galbidera goaz zaratak gortuta, argiek itsututa. Ahotsaren kolokazio haserreak ematen dio abestiari nortasuna, eta gitarraren arpegio eta baxuaren lerroen arteko elkarriketak Itoizen abesti ezagunenak gogorarazten dizkigu ezinbestean. Kantua, erditik aurrera reggaearen murgiltzen da eta hammondarekin batera rockera aldatzean airean desagertzen da.

AFERA USTELA

Txotxongilo eta titiriteroaren arteko harremana. Txotxongiloak ez du bizirik inork mugitu ezean, ezta erabakiak hartzeko ahalmenik ere, askatasun mugatu batean bizi baita. Titririteroak, aldiz, panpina alde batera zein bestera mugitzeko ahalmena du. Berak ematen dio nortasuna (harroa edo apala, azkara edo tentela). Berak erabakiko du txotxongiloaren zortea. Interakzio horretan, bakoitzak bere papera beteaz, elkarren menpeko dira, bai bata zein bestea, agian lezioa horrela ikasia dutelako. Jacksondarrak eta Talking Heads taldean oinarritua, Zazkel taldeak ohikoa duen eklektikotasuna garbi geratzen da abestian zehar jorratzen dituen disco, funk, soul eta bukaerako ia gospel diren koroak.

ZTD DR. KRZYC REMIX

2017ko apirilaren 1ean Bergarako kartzela zaharrean Halabalooza fest. Bertan sortu zen euskal post-pum mugimendua. Ttun Ttun Brigade, Gorpuzkings, Magnetico Grupo Robot, Anunaki, Zazkel eta Dr. Krzyc jotzen dira mugimendu honen aitzindari. Mugimendu honi jarraipena emateko, Zazkel taldeak Krzyc Doktoorea gonbidatu du diskoan parte hartzeko. Dr. Krzyc, bere eritmo eta soinu gordinekin elektronika eta euskal bizarre ukitua nahasten iaioa da, oraingoan Zazkel taldearekin sinbiosia egin eta betiko eskemak apurtzera doa.

Asier Vilan (Axierito) eta Piarres Arregi: bateria
Etxahun Arregi: gitarra eta ahotsa
Irati Arregi: ahotsa
Asier Martinez: baxua
Jon Tolosa: gitarra eta koruak
Oscar Rodriguez: teklatuak eta sintetizadoreak

ritxi aizpuru + zazkel (2017ko irailaren 26)



Tel. 618 072 076-26 / www.baga-biga.eu / info@baga-biga.eu
 221 PK. 48100 Mungia (Bizkaia)